

## 1920. urteko maiatza: Berrezarkuntzaren krisia Donostian



Berta Etxeberria Arquero

*Historian Lizentziatua eta ikerlaria*  
UPV/EHU

### *Laburpena*

Datozen orrietan 1920ko maiatzean Donostian berrezarkuntzaren krisia agerian utzi zuten gertakarien berri emango dugu. Baita eskualde zein probintzian izandako hedapena ere. Horietan I. Mundu Gerra osteko krisi industrialak eragindako atzerapen ekonomikoa, ezinegon politikoa eta Espainia eta Nazioarteko harremanak izan ziren arrazoi nagusi. Azter ditzagun bada jazotako gertakariak, euren testuingurua eta izandako ondorioak.

## 1. I. Mundu Gerra: Gipuzkoan ere? Jakina!

Lehenengo Mundu Gerra amaitu berri dugu 1920. urtean. Zegoeneko urtebete igaro zen aliatu eta herri asoziatuen hogeita hamar ordezkariak bake ituna Versaillesen sinatu zutenetik. XX. mendeko lehen gerrate mundiala Historia Garaikidea ulertzeko giltzarri dugu. Bertako ondorio demografiko, katastrofiko, krisialdi ekonomiko eta kalte sozialez gain; mundu mailako maparen berrantolaketak eragindako nazioarteko oreka berriak mendearen bilakaera baldintzatuko baitu. Gudaren faktore nagusi aginte gose globala izan zen, etsaia suntsitzea jomuga zuen ekintza alegia. Honen aurrean bi jarrera nagusitu ziren: batetik bakezaletasun zein antimilitarismoa. Bestetik, geroko ideologia faxisten ezaugarri diren adore eta heroismoa. Gerraren erresoluzioan potentzi aliatuen interesak gailendu ziren. Eztabaidarik egon ezean, Alemaniaren umiliazio izan zuten helburu.

Eta honek nola eragin zuen inguruneari aztertzeraz ekingo diogu. Nolabaiteko eraginik izan bazuen bederen... nola ez zuen ba izango. Gipuzkoa ez dugu gune isolatua, munduaren gertakariari atxikia dagoen giza esparru geografikoa baizik.

Espainiak I Mundu Gerraren aurrean jarrera neutrala hartu zuen, honek industria astunaren ekoizpenaren igoera ekarri bazuen ere, nekazari eta langileen egoeraren hobekuntzan ez zuen eragin. Esportazioak hazi arren, soldadak berdin mantendu zirelako. Beraz, inflazioaren aurrean soldata errealak handitu ezean, langileen eros ahalmena murriztu zen. Horrela, ezberdintasun sozialak areagotu ziren, tentsio sozialek modu berean gora eginez.

Maila politikoan Gerraren inguruko eztabaida piztu zen. Alderdiek gertakarien aurrean hartu beharreko jarrera eta defendatuko zituzten iritzia azaltzeko garaia iritsi zenean, egunkariak erabili zituzten tresna gisa. Aztertu ditzagun bada bost egunkari ezagunenak<sup>1</sup>:

\* El Pueblo Vasco: neutralizat aurkeztu zuen bere burua. Hala mantentzen da 1917ko otsailean alemaniar blokeoaren aurrean: *si el bloqueo alemán es antijurídico, el inglés tal y como se ha ejercitado no lo es menos*<sup>2</sup>.

\* La Información. Egunkari kontserbadore hau Erdialdeko Potentzien Ardatzaren aldeko azaldu zen. Blokeoaren inguruan horrela mintzo zen: es el merecido castigo que a las naciones neutrales nos imponen las beligerantes (...) son nuestros propios actos los que nos acarrearán las consecuencias de la guerra<sup>3</sup>.

\* La Constancia: *La Información* egunkariaren jarrera bera azaldu zuen. Adibide gisa, 1917ko maiatzean alemaniar urpeontzi batzuen eraginez bi arrantzontzi donostiar hondoratu zirenean egunkariak plazaratu zuena dugu: *son salpicaduras inevitables de la guerra*<sup>4</sup>. Gainera gertatukoaren erantzukizuna arrantzontzi frantsesei egotzi zien, izan ere, buscan parapeto tras los barcos españoles para disparar y guardar la ropa.

<sup>1</sup> Arantza Arzamendi Sesé (2003): "Introducción a la prensa guipuzcoana: desde sus orígenes hasta 1936" en *I Seminario sobre patrimonio bibliográfico vasco*, Servicio central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria,

<sup>2</sup> *El Pueblo Vasco*. 8/2/1917.

<sup>3</sup> *La Información*: 3 /3/1917.

<sup>4</sup> *La Constancia*: 4/5/1917.

Bi egunkari hauek (*La Información y La Constancia*) sektore kontserbadoreen isla ziren, sarritan integrista eta karlisten iritziak aurki ditzakegu eta.

\* *El Liberal Guipuzcoano* eta *La Voz de Guipúzcoa*, batez ere, pentsaera ezkertiarren agerle ziren; aliatuen aldeko azaltzen zaizkigularik.

Gauzak horrela, bi erakundeen berri eman behar dugu. Alde batetik, *Liga Antigermanófila*, 1917ko otsailaren amaieren Donostiako errepublikano guneak sustatua. Tomas Berminghamen gidaritzapean urte hartako apirilean eratu zen. Tartean, politikari errepublikarrak (Duclouz, Gascue, Carasa...), liberalak (Cortzar, Machimbarrena, Orueta...), eta kontserbadore bakan batzuk, Gabriel Laffitte alkate donostiarra kasu, aurkitzen ditugu.

Bestalde, hari kontra egiteko taldea sortu zuten karlista naiz integristek. *Liga Neutralista* deituriko elkarteak erdiko potentzien aldeko apustua egin suen hastapenetatik. Juan Olazabal dugu zuzendari eta eskuin aldeko sektore atzerakoienak biltzen zituen batitan.

Dena den, bi talde hauek zeresana izan bazuten ere, haien zeregina eskasa kontsidera dezakegu. Bake itunaren ondoren eta potentzi aliatuen garaipena ospatzeko asmoz, Liga Antigermanófilak manifestaldiak eta bazkari herrikoiak antolatu zituen<sup>5</sup>.

Donostian hiritar gehienak aliatuen aldeko azaltzen ziren. Ez bakarrik joera ezkertiarreko langileria, baita klase ertain eta altuko burgesia ere. Antza denez, Frantziarekiko gertutasunak eta harekin errotutako harreman ekonomikoak haien aldeko jarrera bultzatu zuten donostiarrengan. Landa munduan, ostera, non karlista eta integristen indarra handiagoa zen; kontrako jokabidea dugu nagusi. Hauetan, biztanleek erdialdeko potentzien defentsa egiten zutela.

Beraz, Lehenengo Gerrate Mundiala Euskal Herriaren Historia Garaikidearen giltzarria ez bada ere, gertakari garrantzitsu lez hartu beharko genuke. Izan ere, IMG garaiko ekonomiaren motorra dugu eta egoera ekonomiko hori, istilu zein tentsio sozialen eragile. Gainera, pentsaera ezberdinen isla hedabideetan argi eta garbi hauteman dezakegu, baita komunikabide berauek pentsaera ezberdin horietan zuten eragina ere.

## 2. Berrezarkuntzaren krisia: kausa anitz, irtenbide bakarra?

Berrezarkuntza 1874tik 1923arte luzatu zen espainiar garai historikoa da. Luzea izanagatik ere, erregularra ezin genezake kontsidera. Bi epealdi nagusi bereizi behar ditugu. Batetik erregimenaren definizio eta sendotze fasea (1874-1898/1902). Bestetik, krisialdia, zeinetan sistemaren funtsak kolokan jartzen dituen arazoak agerian geratzen diren. Bi aldien arteko muga, Alfontso XIII. aren tronu igoerak markatu zuen. Halaber, honek bi epealdiak zehaztu zituen gertakaria dugu, inolaz ere fase bien arteko baldintza bereizgarria. Errege aldaketa ez da kausa ezta nondik norakoaren pertsonaia nagusia ere. Akaso, garai historiko baten porrotaren pertsonifikazioa kontsidera dezakegu.

Antonio Cánovas del Castillo dugu Berrezarkuntza egitasmoaren buru eta haren oinarri ideologikoak erregimenaren printzipio nagusi. Gizon pragmatikoa izaki, indar politikoen oreka azpimarratu zuen sistemaren garapena berma zedin. Liberalismo Doktrinarioaren aldeko,

<sup>5</sup> Pedro Barruso (2003): "La sociabilidad de los espacios en el País Vasco (1900-1936). Casas del pueblo y círculos obreros", *Vasconia: Cuadernos de historia-geografía*, nº33.

guztiaren ardatz jabetza pribatua eta ordena tradizionalaren mantenua ziren. Hartara proposatutako sistema eraketa:

Oreka politikoa bermatzeko bi alderdi liberalen txandakatze sistema zen derrigor. Liberalismo Doktrinario honen baitan, erregeak alderdien bitartekari lanak jorratu behar zituen. Desmobilazio politikoa suerta zedin botere egitura tradizionalen mantenua ezinbesteko zen. Hartara, hiru erpineko jauntxokeria sarea hedatu zen, non, toki eskualdeko elite batek alderdiaren hautagaiaren alde estortsio mekanismo ezberdinak erabiliko zituen. Hau guztia, Madrileko gobernuak, probintziako Gobernadore Zibilaren oniritziarekin batera, gura zituen emaitzak eskura zitzan. Beraz, behin gizartearen zeresana isilarazia, armada eta militarren zeregina estuki mugatu beharra zegoen. Pronuntziamenduen arriskua ezabatzeko erregea armada buru bilakatu eta jeneralen bizi maila hobetu (soldatak handitu) zituen. Zenbait kasutan botere gunetatik urrundu zituen, kolonietara bidaliz. Sistema hau 1885ean *El Pardo*-ko itunean arautu zen<sup>6</sup>.

Gauzak ez ziren antolatu bezala gertatu, egitasmoaren liderrak hil zirenean sistema bera zendu zen hein handi batean. Txandakatze sistema denborarekin agortzen zihoan. Alderdi dinastikoen barne borrokei, jendaurreko sineskortasun falta batu behar zitzaie. Era berean, jauntxokeria jausi zen, sistemaren ezarreratik kritikak jaso bazituen ere, XIX. mendearen bukaerara arte hirietan ez zen gainbehera argia gertatu. Arazoa landa munduan zerraion, non, kazikismoak bere horretan iraun zuen. Gainera, krisia nabarmenduko duten faktoreak areagotuko dira: Nazionalismoa, Marokoko auzia, arazo sozialak... Halere arazo hauek ez ziren krisiaren arrazoi, sistemaren ondorio baizik. Gertakari denak elkarreragin zuten euren arten:

IMGk masen mugimendua areagotu zuen. Horrela, indar politiko berriak azaldu ziren; kausitzen zituzten oztopoak gainditzea helburu zutela. Langile Mugimenduak, esaterako, nozitzen zuen egoera salatu eta bideratzeko grebak antolatu zituen. Honen arazo nagusienetakoa, sektorearen heterogenotasuna dugu, izan ere pentsaera ezberdineko alderdi zein sindikatuak bereiz zitzaie. Iraultza Errusiarraren eragin garbia hauteman dezakegu gizarte istiluen gorakadan. Hartara, 1917 eta hurrengo hiru urteei Hirurteko Boltxebikea deitza. Greba eta indar ekintzak areagotzearekin batera, errepresioa modu berean hazi zen (CNT-aren ilegalizazioa, Ihes Legeak, sindikatu zein alderdi ezkertiarreko lider atxiloketa sistematikoak, zauritu eta hildakoak...).

Agintari eta militarren arteko harremanak Marokoko auziarekin zeharo pozoindua zeuden. Penintsulako eta Afrikako ofizialen arteko bekaizkeriak Defentsarako Junta Militarren matxinatzea eragin zuen 1917ean. Hura baretzeko gobernuak amore eman behar izan zuen eta soldaten igoera onartu. Horrekin batera, urte berean, gobernuak biltzar legegilea desegin zuen, parlamentarien konstituzio erreforma, erregearen botere mugaketa eta Kataluniaren autonomia handitzearen eskakizunen aurka azaldu zenean. Azken eskaera hau abertzaletasunaren hedapenaren testuinguruan ulertu behar dugu, zeinetan euskal eta kataluniar abertzaletasunak biziki gora egin zuten (kultur berreskurapena eta indarketa, eskualde haietako hazkunde

---

<sup>6</sup>Ángel Bahamonde y Jesús Antonio Martínez (2007): *Historia de España siglo XIX*, Cátedra, Madrid.

ekonomikoa...). Nazionalismoa masa mugimendua bilakatzea deitua zegoen. Horrela denbora gehiegi igarotzeke, haren deiarra gizarte osoan zabaldu zen<sup>7</sup>..

Askok Berrezarkuntzaren gainbehera iragarri ostean, azkenean errealitate gauzatu zen. 1923ko irailean Miguel Primo de Riverak, erregearen oniritziarekin, estatu kolpea eman zuen. Hark agintaritzza eskuratu eta Errestaurazio sistemarekin amaitu zuen.

### 3. Eta geurean zer berri? Zaharrak berri! 1920ko maiatza

Euskal Herrian egoera sozioekonomiko eta politikoa estatu osoaren tankerakoa zen. Baina antzekoa izanagatik ere, hainbat ezberdintasun zituen. Abertzaletasuna eta eskubide historikoen aldarria esate baterako, zeinak euskal gizartea ulertzeko ezinbesteko mugarri diren. Gainera, Euskal Herria Espainiako industri gune indartsua izaki, langileriaren presentzia ukaezina dugu. Ekin diezaigun bada, Donostian 1920 gertatutakoa aztertzeari<sup>8</sup>.

1920. udaberria. Maiatza. Beroa: erromeria Lezo inguruan. Bat batean hotza: Behar baino azkarrago zebilen kotxe batek eragin zuen hotzikara herritarrengan. Ustekabeko ekaitzak gazte bat erail zuen. Kotxea izan zen tximista eta gazteak jasotako kolpea trumoi. Laster, danbatekoak astindu zuen biztanleria kotxea arinegi ei zihoala eta. Enbata: Guardia Zibila azaldu zen Tristura nabarmen, ezinegona eta urduritasuna ziren sargori. Euria: Miralles gobernadore zibilak guardia gehiago bidali zituen giroa bare zezaten. Kazkabarra: baretzeko tirokatu. Txingorra: herritarrak zaurituak jalgi.

Egunak pasa ahala, atxilotu kopurua gero eta altuagoa zen. Haien kaleratzea eskatzen zutenen ahotsak erlats zeuden eta garrasi egiten zihardutenen oihartzuna apika-apika isilarazia. Oarsoaldea greban, Donostian tranbia gidari guztiek laga zuten beharra, denda askok, alde zaharrekoak batik bat, euren ateak itxi zituzten. Antzokiek ez zuten saiorik eskaini; izan ere, ikusleek aise zuten kaleetan gertatzen ari zenaren protagonista izatearekin. Maiatzaren amaierako egun horietan eskualdeko prentsarik ez zen irten tipografoek berauen egitasmoa bete ez zutelako. Greba probintzi osora hedatzeko deialdia zabaldu zen. Udal batzuek harekin bat egin zuten, haien artean Eibar dugu aipagarriena, langile mugimendu eta Sozialismoaren gipuzkoar gune ospetsua. Egoera gero eta sostengaezina zen: horniketa arazoak, haiek zirela eta denden zakuratzek eta *lapur* horien jipoitzea.

Egoerak hobera behar zuen egin, eta jomuga hari jarraiki langile batzuk udaletxera zuzendu eta Miralles Gobernadore Zibilak jarrera alda zezan erregutu zuten. Zaragüetak, orduko donostiar alkateak eskakizuna aintzat hartu eta Mirallesi zuzentzeko deliberoa hartu zuen. Hartara zihoala, herriaren oniritzia jaso zuen, bertan bildu ziren donostiarrak txaloka hasi baitziren. Artean, Mirallesen kargu kaleratzea aldarrikatzen zutenen artean manifestaldi paralelo bat eratu zen. Bildu zirenak irainak oihukatu eta harriak botatzen hasi ziren. Guardia Zibilak manifestazioaren aurka su egin zuen. Emaiza: bi hildako eta sei zauritu, horietako bat egoera oso larrian. Gertatutakoaren aurrean greba indar handiagoz probintzian zehar zabaldu zen; Eibarrera, Beasainera eta Ordiziara bereziki.

<sup>7</sup> Walter Bernecker (2009): *España entre tradición y modernidad política, economía, sociedad (siglos XIX y XX)*. Madrid, 2009.

<sup>8</sup> Horretan Donostiako agiritegiaren agiriak erabili ditugu, baita Félix Luengo Teixidor (1991): *La crisis de la Restauración: partidos, elecciones y conflictividad social en Guipúzcoa, 1917-1923*. Leioa ere.

Prensa lokala argitaratzeke zerraion, nahasmena areagotuz. Egoera korapilatsua nabarmena zen jadanik Donostian baita inguruko udalerrietan ere. Ez soilik kaleetan, dagoeneko arazoak erakundetzen hasi ziren. Komisio berezi bat Madrilerazuzendu zen Mirallesen kaleratzea eskatzeko. Torrijosek (Errenteriako Langile Erakundearen buru), Indalecio Prietok eta Francisco Largo Caballerok Bergamín gobernazio sailburua bisitatu zutenean, ministroari eskatzen ziotena lortzea oso konplexua zela azaldu zien.

Nola amaitu zen guztia? Bukaera eman badakioke bederen. Udaletxekoak istilu sozialei aurre egiten saiatzen jarraitu zuen. Aste Nagusian zerbitzariak greba egin zuten, baita tipografo, egur eta metalurgia sektoreetako gremioak ere. Alkatetzak hiriko ongizate eta itxurazko *bakea* bermatu nahian, 1916ko liskarren ondorioz sortutako *Junta de Defensa de los Intereses de San Sebastián*-en porrotaren ostean, erakunde sasi zaindaria berregituratu eta *Junta Popular de Solidaridad Social* eratu zuen. Udaletxetik eta sektore atzerakoienetatik propaganda kanpainak bultzatu ziren parte hartzea suspertuz:

Nuestro querido pueblo, típica ciudad dedicada al turismo, necesita gozar de una afianzada tranquilidad que sirva de garantía de cuantiosos intereses que integran su vida local<sup>9</sup>.

Hemen garbi ikus dezakegu hiri interes nagusia prestigioaren mantenua eta horrek eragin ei zuen ekonomiaren gorakada zirela. Batak bestea asetzen zuelako, bata bestearen aberastasun iturri zelako. Sorgin gurpil honetan elkarreraginak ziren gakoa. Ekonomiaren erabateko babesa gizartearen ongizatearen gainetik zegoen. Hartara, autoritatearen indartzea, jabetza pribatuaren bermea eta industri zein merkataritza askea ziurtatzea erakundearen helburu nagusi izatea. Hori dela eta, euren hitzetan *todas aquellas personas que no tengan oficio o medio de ganar sustento*<sup>10</sup> zelatuak izango dira (ordena publikoa aztoratzenaren beldur), gainera tabernen gainbegiraketa sistematikoak aurrera eramango dira (aztoratzaileen balizko bilgune izatearren). Hezkuntza arloari arreta berezia eskainiko zaio, kontrol tresna baliagarria baita.

Erakundearen bazkide guztiak merkataritza eta industriarekin zerikusi izanak, interes ekonomikoen babesa areagotu zituen. Ikus dezakegun lez, partaide oro ingeniari eta Cámara de Comercio, nahiz Círculo Mercantil-ekoak dira. Liberalek ez zuten egitasmo hiritar honetan parte hartu, ezta langileriak ere. Abertzaleak oster, alderdi buruek ziotenari baldintzatuak zeuden. Donostiarren artean galdetegi bat zabaldu zen, zaindari ekintzetan parte har zezaten bolondresak kausitzeko. Errola 60000biztanlekoa izanik, oso erantzun gutxi jaso zituzten hiri agintariak. Hemen, jasotako zenbakiak: 3793 txuri, 1207 pertsonen konpromezu gabeko adostasuna adierazi zuten eta soilik 36 atxiki ziren egitasmoarekin<sup>11</sup>. Egoeraren larritasuna horren handia izanik, zergatik hain biztanle gutxi hartu zuten parte?

Son los tiempos que corremos de tan marcado egoismo que el incendio nos alarma cuando las llamas cercan nuestra casa. El incendio nos es indiferente, cada cual que lo sofoque como pueda<sup>12</sup>.

<sup>9</sup> AMSS, 5, VI, 2147, 10.

<sup>10</sup> AMSS, 5, VI, 2147, 11.

<sup>11</sup> *Ibidem*.

<sup>12</sup> *Ibidem*.

## 4. Sutearen txinpartak.

Datozen orrietan 1920ko maiatza amaieran jazotako gertakarien faktoreak aztertuko ditugu. Donostia gune harturik bertako biztanleriaren jarrera politikoa, jokabide horren arrazoiak eta horiek egunerokotasunean izandako isla laburtuko dugu.

### 4.1. Langileak sutan

XX. mendearekin Donostiaren garapen ekonomikoak biziki egin zuen gora. Aberastasunaren iturburu nagusi turismoa izan zen. Espainiar monarkiaren uda egonaldiak bisitarien ugaritzea eragin zuen; izan ere erregeen presentziak prestigioa eman zion hiriari, baita altxor publikoaren ugalketa sustatu ere. Bidaiari askok Donostia zuten helmuga, hala adierazten dute behintzat udal estatistikek<sup>13</sup>:

Urtea	Udako bisitari kopurua
1900	588397
1910	1038661
1920	2533133

Turismoa ez zen aberastasun iturri bakarra; honi merkataritza, industria, eraikuntza batu behar zitzaizkion. Espekulazio eta finantza baikortasun giro honetan barna, Donostia gero eta gehiago hazi zen (demografikoki, ekonomikoki eta hirigintzari dagokionez ere)<sup>14</sup>.

Diru jario handi zegoen garai hartan, bai estatuarena bai jatorri atzerritarra (frantsesa batik bat) zuena. Honen erakusle bertako banketxeen sorrera dugu: 1899.an *Banco Guipuzcoano* eta hamar urteren buruan *Banco de San Sebastian* zabaldu ziren. Biek ala biek garapen handia izango dute<sup>15</sup>.

Industriaren gorakada lantegien irekieran izan zuen isla. Baita auzo berrien eraikuntzan ere, langileria berriaren aterpe bilakatu zirelarik. Aitzitik, apurka- apurka artisautza desagertzeko joera ikus zitekeen, lantegi ertain eta handietako lan arautuen mesedetan. Produktibitatea ei zen aldaketaren gakoa<sup>16</sup>.

<sup>13</sup> AMSS, B, I, 27,2.

<sup>14</sup> Carlos Larrinaga Rodríguez (1998): "San Sebastián 1813 – 1900: la configuración urbanística de un modelo terciario"; *Lurralde: investigación y espacio*, nº21, or. 301 – 308.  
<http://www.ingeba.org/lurralde/lurranet/lur21/21larrin/14larrin.pdf>

<sup>15</sup> Montserrat Garate Ojanguren y Javier Martín Rudi (1995): *Cien años en la vida económica de San Sebastián: 1887 – 1987*, Instituto Dr. Camino de Historia de SS, Donostia.

<sup>16</sup> Amaia Apraiz Sahagún y Ainara Martínez Matia (2007): *La otra cara de la Bella Easo: las industrias donostiaras*, Diputación Foral de Guipúzcoa, San Sebastián.

Donostiako fabrika gehienak Antiguoa eta egungo Benta Berriko auzoetan kokatu ziren: Lizariturry xaboi lantegia, Manterola porlan fabrika, Eztenaga poxpolo lantokia, Brunet botila egileak, Suchad txokolate ekoizleak eta Kutz garagardo fabrikak<sup>17</sup>.

Hiriko beste industria gune batzuk azpimarragarriak izan ziren ere. Hala nola, Egiako auzoan Fagoaga eta Tabako fabrikak zeuden. Grosen Goenaga, Alvarellós poxpolo lantokiak aipagarriak ditugu, baita Louit eta Gros jaunaren jostorraz fabrikak. 1901ean zezen plaza berriaren eraikuntzak lan ugari sustatu zuen. Uli mendia inguruan tailer, fabrika txiki eta hainbat gordelekuren berri eman behar dugu. Bestalde, hirigunean merkatu, denda, errementariak, arotzak eta aterkien fabrika txikiak kausi zitezkeen<sup>18</sup>.

Garaiko espedienteek adierazitakoari esker, egun langile horiek nozitzen zuten egoera hobeki ezagutu dezakegu. Lantegien tamaina, produkzio zein produktibitatearen berri dugun bezala; langileen soldata, ordutegia eta osakeria errepara diezaiotegu. Guztiak, orokorrean, fabrikaren beharrei hasi aurretik, arautegi jakin baten onartzearen menpe zeuden. Horrela, ugazabek nolabaiteko zilegitasuna ematen zioten ezarritako baldintza zorrotzei. Bestalde, ogibide batzuetan, oro har, emakumeak egiten zuten lan. Horien artean, Goenaga eta Eztenaga poxpolo fabrikak ditugu. Indar fisiko handiagoa eskatzen zuten eginkizunetarako ordea, gizonen esku lana hobetsi zen. Har dezagun adibide gisa Antiguoa auzoko Brunet botila fabrika; bertan 43 gizonen, garbitzaile zereginak betetzen zituzten hiru emakume eta 12 hurrek osatzen zuten langile multzoa. Soldatei dagokienez, batzuen eta besteen artean ezberdintasunak bereiz daitezke. Hala, beira putzegileek egunean 4-10 pezeta artean irabazten bazituzten ere, gainerakoek 8-12 erreale jasotzen zuten. Hurrek ogibidea ikasten ari ziren eta laguntzaile lanak burutzen zituzten gaztetxoak izatearren, egunean lau errealeko *erremusina* erdiesten zuten. Emakumeen garbitzaile zereginak 6 errealekin ordaintzen ziren<sup>19</sup>. Langileek diru kopuru murriztu hau xahutzeko astirik ez zuten, ordutegi luzeak zirela eta. Egunean hamar orduko lanaldia bete behar zuten, ordu erdiko bi etenaldi egiten zituztelarik. Hartara, garaiko eskakizun nagusia zortzi orduko lanaldia aldarrikatzea izatea.

1919. urtean, batik bat apiriletik urrira bitarte, 19 greba egin ziren 70.344 lanegun galdua. Hauen deialdia, lanorduen murrizketarekin estuki zegoen lotua. Ugazaben jokabidea aldarrikapen hauen inguruan oso bestelakoa izan zen Gipuzkoako zonalde ezberdinetan. Hala ere, probintzia osoan ordu murrizketaren aurka azaldu ziren fabrika jabeak, ekoizpena jaitsi eta aldarriak handitzearen beldur. Grebak oso ugariak izan ziren urte hasieratik Hernanin (Londaitz irin fabrika, Beotibar papertegia), Pasaia eta Errenterian (Niessen eta Yute fabriketan) esate baterako. Liskarrak aipagarriak izan ziren Tolosa inguruan, Espainiako papertegia metalurgiako langileek ere gatazkan parte hartu zuten. Donostian, igeltsero eta arotzek grebara deitu zuten otsailean. Maiatzen donostiar tranbiako langileek istiluak eragin zituzten. Gertakari larrienak udaran suertatu ziren jostun, eraikuntza arloko langile, zapatari, harakin eta merkatariek greba egin zutenean<sup>20</sup>.

Ezbairik gabe, gertakaririk aipagarriena Bergarakoa dugu, zeinetan zortzi orduko araudi berria sinatu ostean, fabriketako jabeek langileen ordutegia aldatuko ez zutela adierazi zutenean

<sup>17</sup> AMSS, B, 10, I, 388, 1.

<sup>18</sup> *Ibidem*.

<sup>19</sup> *Ibidem*.

<sup>20</sup> Juan Pablo Fusi (1975): *Política obrera en el País Vasco, 1880-1923*, Turner, Madrid. Luis Castells (1998): *Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración, 1876-1915*, Siglo XXI, Madrid.



langileek grebara deitu zuten. 800 eta 1.200 artean bat egin zuten deialdiarekin, hilabete inguru lana bertan behera utzita. Denbora hartan, inguruko herrien laguntza berebiziko izan zuten. Eibar eta Soralezeko herritarrek greban zeuden langileen hornikuntza arazoak saihesten saiatu ziren diru laguntzen bidez. Probintzi osoan Bergararekin elkertasuna adierazteko greba deialdia gakoa izan zen gatazkaren ebazpenerako, izan ere, agintariek haren beldur amore eman zuten. Ondorioa: zortzi orduko lanaldiaren onarpena. Gainera, galdutako egunen soldatak ordaindu eta ugazabek langileen aurka inongo neurririk hartuko ez zutela zin egin zuten<sup>21</sup>.

Dena den, langileen arteko elkarkidetzaz ez da ohiko ezaugarri izaten. Batasunik eman ezean zatiketa zen langileriaren arrakastarako arazo nagusi eta ez hainbeste ugazaben jarrera zorrotza. Halere, azken hauen jarrera kontuan hartu beharreko ezaugarria dugu lan arloko gatazken erresoluzio zein bilakaera aztertzeo garai. Bergarako kasua, elkarkidetzari dagokienez salbuespena kontsidera genezake.

Gauzak horrela, Donostian jadanik zeuden langileak eta duela urte batzuk kanpotik zetozen etorkinen kopuru altuak zirela eta, auzo etxe berriak eraikitzeari ekin zion hiriak. Batzuetan, fabriketako jabeen ekimen pribatuz ematen ziren aurrera eraikuntza hauek, Lizariturry eta Rezola kasu. Oro har, lantegiak zeuden auzoetan kokatzen ziren langileen etxeak: Egia, Benta Berri, Amara Zaharra eta Sagües besteak beste. Etxebizitza berri hauek ez ziren nahikoa izan langileen aterpe eskubidea bermatzeko. Donostiar etxebizitzaren salneurriak garestiak ziren, erraz kausi daitezke errenta nahiz salneurri altuak ordaintzeko zailtasunak zituzten herritarrek. Larritasun horiek arintzeko xedearekin, 1917. urtean udaletxeak etxebizitzaren inguruko arautegi berria onetsi zuen. Bertan, ganbarak bizitzeko erabiliak izan zitezkeen baimena luzatu zen<sup>22</sup>. Halaber, arazoak konpontzeko nahikoa geratzen zen oraindik.

Langileriak, nozitzen zituen arazoei aurre egiteko, borroka politikoari ekin zion. Sarritan, gatazka horiek kaleetan izan zuten agertoki: 1916ko lehen greba orokorra, 1917ko abuztuko istiluak eta aztergai dugun 1920ko maiatza korapilatsua. Alderdi eta ideologia berriek bat egin zuten biztanleriarekin, azpimarragarria da hark denbora laburrean erdietsi zuen protagonismoa. Parte hartze horren adierazle elkarte politiko hauek zabaldu zituzten lokalak ditugu:

1897.ean sozialistek euren lokala ireki zuten Portu kaleko 7. zenbakian. Hari esker jarduera politikoak ekintza politiko lez kalera irten ziren. Errepublikarrek 1885.etik zeresan handiagoa izan bazuten ere (La Voz de Guipúzcoa zen beraien hedabidea) 1903. urte arte ez zuten lokalik izan, urte hartan Lasala enparantzan ireki zituzten elkartearen ateak. Urtebete beranduago Garibay 4 kalean Centro Republicano delakoaren partaideak biltzen hasi ziren. Alderdi Karlistek euren gune tradizionalista kale Nagusian ireki zuen, Integristek gauza bera burutu zuten haien bilgunearekin 1907.ean. Hauek Príncipe kalean kokatu ziren. Katolikoek ordea, zabalgunean zeuden; Centro Católico Getaria kalean eta Sindicato Femenino de Nazaret Príncipe kalean, azken hau burgesiaren ekimenez sortua. Anarkistek Egian aurkitu zuten euren tokia. Langile abertzaleak, berriz, Parte Zaharreko Kanpandegi kalean ireki zuten Solidaridad de Trabajadores Vascos-en bilgunea. Kokaleku hauek guztiak donostiar geografia politikoa islatu zuten hein handi batean: Sozialista eta abertzaleak alde zahar eta langile auzoetan (Egia); ostera, katoliko eta kontserbadoreak zabalgunean.

<sup>21</sup> Félix Luengo (1991): *La crisis de la Restauración: partidos, elecciones y conflictividad social en Guipúzcoa, 1917-1923*. Leioa.

<sup>22</sup> Félix Luengo (2000): *San Sebastián. La vida cotidiana de una ciudad*, Txertoa, San Sebastián.

#### 4-2. Abertzaletasunaren gorakada

1895. urtean Euzko Alderdi Jeltzalea sortu zen. Honek denborarekin gero eta jarraitzaile gehiago bildu zituen. XX. mendearen hasieran, Arana hil osteko alderdi barruko barne zatiketa eman ondoren (Aberritarrak eta Euskalerrria) EAJak kide kopurua areagotu eta abertzaletasuna hedatuko du. Hauteskundetan gero eta indar handiagoa eskuratuko du, batez ere 1917. urtean, zeinetan azaroko udal hauteskundetan emaitza oso onak lortu zituzten. Zenbait herritan, sozialisten aurretik ipini ziren, abuztuko grebaren porroteko faktoreetako bat hau izan zela agerian geratuz: alderdi ezkertiarren indar galera, abertzaleen mesedetan. Gainera urte hartan autonomi aldarrikapenak biziki egin zuten gora, Santiago Albaren zerga berri baten ezarrera saiakerak kontzertu ekonomikoaren aurkako ekintza suposa zezakeelakoan. Francisco Cambók hasitako ibilbide autonomista indartu zen ere Euskal Herrian. 1918. urtean hauteskunde orokorretan, EAJk Bizkaian bost eserleku, Araban hautagairik aurkeztu ezean aukirik ez zuten lortu eta Nafarroa zein Gipuzkoan bakarra eskuratu zuten. Ez al zuen abertzaletasunak indarrrik Gipuzkoan?

Bai, baina ez Bizkaiak beste. Abertzaletasunaren hastapenak Gipuzkoan motelak izan baziren ere, jarraipena irmoa izan zuen. 1904. urtean, bost herrik soilik zituen hamar kide baino gehiago, lau urte igaro ondoren 40 udalerrri inguru dira<sup>23</sup>:

1904. urtea Gipuzkoan	1908. urtea Gipuzkoan		
Errenteria Donostia Deba Bergara Arrasate	Segura Urretxu Ordizia Alkiza Ezkio Astigarreta Ibarra Berrobi Zumaia Zumarraga Zarautz Usurbil Urnietia	Tolosa Errenteria Errezil Soraluze Oiartzun Ormaiztegi Orio Altza Aretxabaleta Andoain Antzuola Ataun Azkoitia	Azpeitia Beasain Bergara Deba Donostia Eibar Elgoibar Elgeta Itsasondo Lazkao Legazpi Hondarribia Oñati

Garapen hau eman zedin propagandak berebiziko papera jorratu zuen. Bizkaiko *Bizkaitarra* eta *Baserritarra* aldezkariak lez, Gipuzkoan *Gipuzkoarra* astekariak bete zuen erakartze lan hori 1907. urtetik aurrera. Aldizkari honen 6.000 ale plazaratzen ziren aldi bakoitzeko, eta abertzale *txit apartek* parte hartzen zuten izkributan. 1913.ean Euzkadi argitaratzen hasi zen Engracio de Aranzada *Kiskitzaren* gidaritzapean. Bere kritika gordinenak donostiar hiriari zuzendu zitzaizkion, burges zein aristokraten udako gunee leporatzearren.

Donostia se nos presentaba en 1904 como una ciudad liberal y como una ciudad, a veces, netamente españolista. Una población acogedora de cuanto podía

<sup>23</sup> J.C Larronde (1977): *El nacionalismo vasco, su origen y su ideología en la obra de Sabino Arana Goiri*, Donostia, 330. or.

traerle dinero (...) A mediados del siglo XIX se inició su expansión turística de prosperidad, fuente bien poco gallarda, insegura y antivasca, como contraria al genio de la raza que se rebela en situaciones que demandan cordialidad fingida y perenne flexibilidad de espinazo (...) nada más triste que el ver en la ciudad convertida en inmensa casa de placer en la que se deshacía entre ingominias, toleradas por lo que producían una gran raza. Era ésta la población, el pudridero de Guipúzcoa. El esplendor del movimiento veraniego, que a cambio de un puñado de oro corrompía y corrompe la ciudad vasca y todo el territorio guipuzcoano. Los vascos que hemos tenido la desgracia de nacer en esta población. No podemos tener otro ideal que el de contemplar el hipo de hartura de los gomosos que llenan las terrazas de las fondas y guardar con las monedas que nos echan, sus palillos de dientes. Ciudad prostituida que se levanta provocativa sobre nuestra dignidad de cristianos y vascos<sup>24</sup>.

Berrezarkuntzaren azken urteetan EAJ.ak Donostian indarra handituz joan zen. Erradikalismotik at, autonomismoaren ildotik gero eta hautesle kopuru altuagoa bildu zuen. Haren erakusle 1920.eko udal hauteskundeetan lortutako bost zinegotziak<sup>25</sup>.

## 5. Krisiaren errauntsak

Donostiak Berrezarkuntzaren krisia Espainiako gainontzeko hiriek bezala bizi zuen. Politikari eta agintari tradizionalen gainbeheraren aurrean aktore politiko berriak agertu eta gizartearen babesa lortu zuten. Lehenengo Mundu Gerrak eragindako inflazioa langileriak jadanik pairatutako ezbeharrak areagotu zituen, horrela kale istilu zein greba kopuruek biziki gora egin zutela. Ebatzi dugun 1920ko maiatza kasu.

---

<sup>24</sup> Engracio de Aranzadi, Kizkitza (1935): *Ereintza. Siembra del nacionalismo vasco 1894-1912*, Editorial Vasca, Zarautz, 173. or.

<sup>25</sup> Miguel Artola (Ed) (2000): *Historia de Donostia – San Sebastián*, Nerea, Hondarribia, 376. or.